

MINTZOLA

Ahoa Bete Hots jardunaldiak

2014ko uztailaren 2, 3 eta 4an

ZUBEROAKO KANTUAREN TRANSMISIOAZ

Maika Etxekopar

Kantuaren transmisioaz mintzatzea galdegina izan zait. Nik ez dut gai horren inguruko ikerketarik egin, baizik eta barnetik bizitu, horretarako ingurumen lagungarri batean sortu naizelako batez ere. Eta erran dezaket transmisioaren ekile ere ez naizela : ez dut kantua erakasten, praktikatzen baizik. Publikoaren aitzinean kantatzea transmisioaren parte baldin bada, gaztetxo batzuei kantatzeko gogoia ematen badie, orduan hau izan daiteke nire transmisio xumea. Transmisioaz mintzatuko naiz beraz transmisioaren jasotzaile lekutik, eta zuberotar kantarisia gisa ene inguruko transmisioen behatzaile lekutik.

GAUR EGUN ZUBEROTAR KANTUAREN IKUSPEGI BAT

Hona gure ibarrean kantua ikuspegi baten marrazteko aipa dezakedana : talde anitz bagara, mutiko ala neska soilez osaturik edo nahasirik (Oilarrak, Ainerak, Amaren alabak, Santa Graziko neskatilak, Altzürüküko neskatilak, Iruriko zuberotarrak, Altzürükütarrak etb...). Familiako taldeak ere badira, anai-arrebak, ahizpak elkarrekin kantuz (Etxegoihen ahizpak, Larrory anaia-arrebak). Bakarlariak ere badira, gero eta gutxiago agian, zuberotar kantua "moda xaharraren" begirale (Maddi Oihenart, Jean-Mixel Bedaxagar) ala modernoagoak (Maddi Oihenart sortzaile gisa hemen ere, Pier-Pol Berzaitz, Peio Serbielle, Jean Bordaxar).

Horietaz gain herrietan urtero herriko pastoralen bidez, Haur Kantu Txapelketen bidez kantari berri batzuk argira agertzen dira. Erran behar da Zuberoan ez dela kantu eskolarik. Ikastetxeetan abesbatza bat edo beste (*Amaren alabak*-etako kideak ere hortik pasatu ginen) baina transmisioaren parte handiena familian edo bestan, lagunekin, egiten da. Gazte batzuek "lepoko zainak etenik" kantatzen dute, kantu tradizionala adierazpen bortitz eta sakona bilakatuz orduan, beste leku batzuetan heavy-metal musika kantatzen den bezala. Herriko besta askotan, goizeko 5ak itxoin behar dira bestako orkestra isil dadin eta gelditzen den jendea (pentsa zer akidura eta alkoholizazio egoeran) kantan has dadin, baina iruditzen zait memento horrek baduela bere sakralitatea, bestaren gehiegikerien ondotik iratzaririk egoten direnek euskararen galtze prozesua eta baserrien hustearen ondotik euskal kantagintza bizirik iraunarazten duten grazia mementoa. Gure barnean zerbaitek bizirik irauten duelako marka.

Eskolarik ez dela erran dut baina Larrainen salbuespen bat bada, eta beste herri batzuetan ere agian: zuberotar herri gehienetan haurrentzako dantza eskola bat bada; Larrainen aldiz dantza eskolak bere denboraren erdia kantuari ematen dio. Orokorki dantzarena oso formalizatua baldin bada, bertsoa ere gero eta gehiago dagoen bezala, kantuarena oso informal geratzen da.

KANTUA ETA NI

AMAREN ALABAK – AITEK ALABEI

Nire bizipenaz ere zerbait erran behar dut, etxean eta *Amaren alabak*-ekin bizi ditudan kantu esperientziez batez ere, espero dudalarik kontakizun honek nire ingurumenaz ere zerbait ezagutzera emanen duela.

Kantuarekiko nire ibilbidea hau izan da: txikitik ikastolan hastapen-hastapenetik euskaraz kantan ari izan gara denak elkarrekin, eta ontsa gozatu. Etxean ere agian kantua hor zen baina hartaz ez dut oroitzapen zehatzik, ez bada autoan bidaia luzatzen zelarik (erran nahi baita Maule pasa-eta) denboraren iragaiteko eta gutxiago mareatzeko kantatzen gintuen kantuak, frantsesez gehien bat, amak erakatsirik. Gero Haur Kantu Txapelketan sartu ginen. Bai etxean bai ikastolan gertakari horretarako prestatzen hasi ginen. Etxean txapelketan sartzea nire ekimena izan zen: ni joan nintzen Mixel aitarengana, 10 urterekin, bakarrik kantatzeko kantu bat ikasi nahian. Berak « Berterretxen kanthorea »-ren hiru bertset erakatsi eta horrekin bakarkako lehen saria irabazi nuen. Ondotik ere Etxahun Iruriren « Domecq mariñela » kantuaren 3 bertsoekin aurkeztu nintzen, eta azkenik aitak sortu eta pianoz lagundu « Ametsa » kantuarekin. Artean, beti aitarekin, « Goizean goizik » kantua ere landu genuen, berak flauta batekin lagundurik. Nire bakarlari bizipena beraz aitarekin estuki loturik da.

Bestalde, 10 urte inguru nituelarik, Jean-Mixel Bedaxagarrek Maider alabari galdetu zion bere inguruko lagun biltzea Julian Gayarre eta Etxahun Iruriren biziak kontatzen zituen *Ama* ikusgarrian parte hartzeko, eta ni horietarik izan nintzen. Berriz ere aita-alaba afera bat beraz, nahiz eta taldearen izenak alderantzizkoa erran. Amaren alabak taldea neska talde bat izatea Jean-Mixel Bedaxagarrek determinatu zuela erran dezaket, geroztik baieztatu delarik bera oholtza gainean sexuen nahasketaren guztiz aurka zela. Aurten eman dugun Bedaxagarren *Alienor* pastorala ere berdin, emazte pastoral bat baina gizonen bultzaturik eta eramanez. *Amaren alabak* hala abiatu ginen taldean beraz, Kantu Txapelketaren bidez gure taldea ezagutarazi, sari bat irabazi eta ondorioz inguruko herrietako kantaldietan parte hartzeko gomita luzatu zitzaigun. Orduan, eta hainbat hobe, behar izan genuen gure kantutegia garatu. Horretarako aitari laguntza eskatu genion. Eta hola jarraitu genuen Nicole amak, gurekin ikusgarri baten sortzeko ideia ukan arte. Honekin osatu zen gure nortasun artistikoa : kantuan ez ezik, dantzan eta espazioaren lanketan hasi ginen. Pixkanaka, aitak bai amak ezarri gintuzten bidean gure kabuz jarraitu genuen eta gaur egun guhaurrek asmatzen ditugu gure kantu moldaketa eta gorputz mugimenduak. Transmitturik izan zaigun praktika guretu dugu, hots.

Amaren alabak-en kantutegiaren baitan transmisioari lotutako urrats batek ere markatu gintuen: *Anderegatik* ikusgarriaren sortzeko, amak Zuberoako andere “etorkin” batzuegana eraman gintuen, lehen, bigarren, batzuetan hirugarren belaunaldikoak, eta haien jatorrizko herrietako kantuak ikasi genituen : portugesez, italieraz, gaztelera. Hor agian ikasi genuen herentzia ez dela

“naturaliki” transmititurik zaiguna bakarrik, baina baita ere guhaurrek bila dezakeguna, hauta dezakeguna. Euskaldunak ez ziren emazte horien oinordeko bilakatu ginen. Aro eta lurralde baten alabak, hauen konplexutasun, nahasketa eta aberastasunean.

Alde horretarik erran dezakegu Zuberoa, eta Euskal herria orokorrean, oso kantu eskola ona dela gehien bat kantari asko entzun daitezkeelako eta kantatzeko parada asko eskaintzen dituelako, izan dadin bestan, jendeen artean ala kantaldietan, herriko bestetan. Guk inoiz ez dugu kantaldi baten bilatzeko eri txikia ere mugitu eta hala ere Euskal Herri osoa kurritu dugu, mundu txiki eta bizia delako, oso kantu zalea gainera.

Amaren alaben kantutegiak oinordekotzaren inguruko beste galdera batzuk pausatzen dituela uste dut: interpretazio mailan, gure asmoa beti izan da jostatzea, berritzea, jendearen harritzea, belarrien zirikatzea ohiko polifonia sistemarekin eta hitzekin jostatuz. Honela espero dugu maite ditugun kantuei hats berri baten ematea eta entzuleek belarri berri batez entzutea, kantari eta entzuleen arteko harremana ere berritzea kantua belarriaren goxatzeko modu bat bakarrik izan ezik komunikazio modu bat ere dela baietsiz. Gure lana elikatzen duen ardura horrek Zuberoan azken denboretan entzuten den musikari ihardespene bat da : gitarrarekin lagundurik, euskararik ez dakiten gazte batzuek euskarazko kantuak gaizki ahoskatuak eskaintzen dizkigute eta entzuleria kantarien ahots ederrarekin, doinu politarekin, gitarrek batzuetan eman dezakeen leuntasunarekin pozten dira, guretzat kantuaren erdia falta delarik hemen: zentzua. Gure kantuen soinuarekin jarraitzeko, uste dut gure eskola zuberotar kantari tradizioak duen basa-aire horretan datzala: kantari bakarlariak, erritmoz libro, doinuen interpretazio pertsonaletan, ahotsak harrotuz. Gure erreferentziak Maddi Oihenart, Xübürü, Epherre, JohaÑe Barcos, Bedaxagar eta beste hainbeste kantari dira, *moda xaharrear* ari direnak. Guk molde hori gure egin nahi izan dugu, nahiz eta taldean aritu, bakarlariak duen askatasun hori murrizteko ordez taldean biderkatzen saiatuz bertset batetik bestera kantuz ari denak doinua bere ahotsari egokituz eta abar. Gure ahotsei dagokienez, erran dezaket kantatuz egin direla, denborarekin zohitu, pixkanaka bakoitzak berea aurkitu, sendotu duela. Txikitan hala ere Zuberoko haur abesbatza klasiko batetik pasatu ginen gehienak (jazz, frantses, ingeles, euskarazko kantuekin) eta segur da hor ikasi genituen teknika eta diziplinak, baita taldean eta polifoniar aritzeko ohiturak gero lagundu gintuela.

Orain gure kantuen hautuak aipatu nahi nituzke : hastapen batean, nerabezaroan, erran nezake tendentzia hauek genituela: bat gure nortasuna abertzaletasun eta euskararen aldeko militantismoan eraikitzea (Agure zaharra, Makil kaska eta abar) eta bestalde exotismoaren bilaketa (*Argi oilarrak* Galiziako Faltrikeira taldeak emanik) eta zaharkitua iduri zitzaigun tradizioa iraultzen saiatzea (Attuliren Xahakoa berridatzi). Ondotik, euskaldun baino gehiago gure zuberotar nortasuna baietsi nahi izan dugu, gure zuberotar iturri zaharretik edan: Etxahun Barkoxe eta Attuliren kantutegian kantuak hartu ditugu. Honekin batera, bertsoen eta hitzen edertasunari sentsibilitatea ere garatu diogu, eta kantuak horren arabera hautatzen hasi gara (Xalbadorren bertsoak, Etxamendirenak).

ZUBEROTAR KANTUAREN MODERNIZAZIOA –GURE OINORDEKOTZAREKIN ZER EGIN?

Etxahun Iruri kantu sortzen hasi zenetik zerbait aldatu da, zuberotar kantu berri bat sortu da, zerbait sinplifikatu da. Kantu zaharragoetan hitza eta doinua estuki loturik ziren eta hitzak kantua manatzen zuela uste dut, hitzek kantatzen zutela. Kantu horiek gaizki emanak izan ahal ziren (oso

erregular, interpretaziorik gabe) baina zerbait galtzen zuten orduan. Basahaideen kasuan hitzetarik haratago den zerbaitek manatzen zuen, kantariaren barnea eta ingurumenaren arteko konexio batek. Oraingo kantuetan aldiz usu doinuak, gitarrak eman erritmoak hitzetan gaina hartzen du, oso formalak izan daitezke eta usu publikoa erritmoan esku zartaz hasten da, hitzak lasai-lasai estaliz.

Ene ustez *Amaren alabak*-ekin inoiz gaintzen lortu ez dugun urratsa hau da: guhaurren kantuen sortzea. Azken finean gure izenak dion bezala beti besteen alaba egoten gara, besteen hitzekin mintzo, nahiz eta hitz horiek guk hautatzen ditugun. Ez du kentzen lan horrek bere balioa duenik: plazera eta sorkuntza hor dira eta publikoarekiko harremana ere. Nik beti erraiten dut, bitxiki, gauza zaharrei buruz ados jartzea oraingoekin baino askoz errazagoa zaigula. Urrunago eta neutroago balira bezala, eta gu gaurkotasunean gure burua arriskatzeko kemen eskasez. Ber denboran, oinordekotza dohatsu batean bermatzen den gure kantutegia gure publikoarekin erraz parteka dezakegu, berarekin partekatzen dugun ondare komun baten plazera eskaintzen dugu, eta zuberotarrak betiko euskalduntasun baten begiraleak garelako segurtasuna iraunarazten.

Ene anaia talde berri baten sortzen ari da, Zuberoots izenekoa, eta zuberotar kantu zahar ezagunak, *standard* handiak (*Oihaneko zühainetan*, *Agur Zuberoa* etb...) ostatu xokoan guztiek kantatu ditugunak, reggae eran moldatzen dituzte. Tradizio horren guretzeko beste manera bat. Ari gara beti birziklatzen eta santza handia dugu birziklatzeko pasta asko baitugu.

Kantuak duena, bertsoarekin konparatuz, hau da : errepikatzen da “gure hitzak esan, berriz esan”. Zer sortzen da beraz kantatzen denean?

TRANSMISIOAREN BAINUA HUSTEN ARI?

Kantuaren transmisioa Zuberoan luzaz “bainu” batean bezala egin dela uste dut, kantua airean balitz bezala, hizkuntzaren ber bidetik ikasia, naturalki, kantatzea gustatzen zaionak bainuan egotea eta ur horretarik nahi eta ahal bezainbeste edatea besterik ez zuelarik. Bainu horretan hizkuntza eta kantua uraren osagarri dira, bata bestearengandik bereizezinak. Gaur egun egia erran ez dakit transmisio informal horrek luzaz irauten ahal duen, *moda xaharreko* bainu horrek gero eta ur gutxiago duelako ene ustez. “Moda xaharra” aipatzen dudalarik ez nuke nahi nostalgia edo iraganaren idealizazio batean erori baina kausitzen diodan balioa, eni asko gustatzen zaidan estetikaz gain, hau da: kantaera horrek duen interpretazioaren askatasunak, ahozko transmisioak duen birsorkuntza parteak sorkuntzaren oldea ere iraunarazten duela bere baitan. Eta hizkuntza kentzen baldin bada, olde hori oso kolpatua gelditzen dela.

Dantzak hizkuntzarik gabe irauten du Zuberoan. Dantza talde gehienetan euskaldunik ez da, eta batzuk baldin badira ere ez dira euskaraz ari haien artean. Godalet dantza “*la danse du verre*” deitzen dute, eta ene herrian “*txerrero*” den dantzariak bere txerra “*le baton*” (makila) deitzen du. Orain arte, frantsesez mintzatu arren euskarazko hitzak mantentzen ziren, euskal kulturako objektuek euskarazko izena baizik balute bezala, nahiz eta kuskua huts bat izan: *la txerra*. Hemen aldiz izena, hitza ere desagertu zaio. Johaño Etxebest dantzariaren inguruan talde berri bat sortu da zeinetan euskaraz lan egiten duten. Ez da herri bateko taldea baizik eta herri arteko dantzari selekzio bat. Herri gehienetan pentsatzen dut ezin litekeela dantza talde euskaldun bat osatu, eta maskarada baten egiteko doi-doia kausitzen da behar den gazte euskaldun kopurua, parte hartzaile gehienek euskararik ez jakin arren. Nik ere ene herrian ezin nituzkeen 5 neska euskaldun kausitu Amaren

alabak bezalako talde baten osatzeko. Nahi badugu euskaraz bizi, herri ezberdinetako gazteek bildu behar dugu.

Azken denboretan kantua dantza bezala praktikatu da: nahiz eta euskararik ez jakin, euskaraz kanta dezakezu. Honela arazoa ezkututzen da: kantuak aitzina jarraitzen du, dantzak ere bai, tradizioa mantentzen da eta euskara peko erre kara doa oharkabea, edo euskararen galtzea arazo bat dela ohartu gabe, itxuraz ez baita deus ageri eta lehen bezain *polita* iduri baitu. Nik azken bizpahiru urteetan bi basa-pastoraletan parte hartu dut (herrietako pastoral handiak ez direnak, bedatseko pastoral xumeagoak) : *Ederlezi*, Euskal Herriko buhameen istorioaz, eta Akitaniako *Alienor*, emazte pastoral. Pastoral horietan parte hartzeko baldintzetarik bat, kantari izateaz gain, euskaldun izatea zen, lana euskaraz egiten baita eta testuaren interpretazio bat galdeginik baita. Pastoral horiekin uste dut jendea konturatu dela euskaldun izateak zerbait aldatzen duela: interpreta gazteek euskara badakitelarik, ikusle gisa zerbait gehiago, hobeki heltzen zaigu. Eta horren plazerak bere itzala ere badu: euskararen arazoa agerian ezartzen du. Beste adibide bat: ene aita eskola publikoetan euskara irakasle da eta hurrekin diskoak egiten ditu. Hurrek etxeko kantu, hitz joko, erran zaharrak ekartzen dituzte etxeko hizkuntzetan (euskaraz, frantsesez, biarnesez, gaztelerez, portugesez...) eta gelan moldatzen eta grabatzen dituzte. Aitatxi-amatxiak orduan dira ohartzen haien arraseme edo arralabak euskararik ez duela ulertzen, ez ongi ahoskatzen. Ordura arte ez ziren ohartu hurrari ez ziotelako euskaraz mintzatzeko paradarik eman. Holako proiekturik ez balitz, iruditzen zait ez lirakekeela ohartuko ere hizkuntzaren transmisioan haustura bat badela, haurra egun batez euskaraz mintzatu nahi bada haien hizkuntza eskura ematen ahalko diotela sinesten balute bezala.

LABURBILDUZ

Transmisioari buruzko hitzaldi honetan parte hartzea proposatu zitzaidalarik honako pentsua jin zait gogora: berriz ere aitaren alaba naizelako deitu naute, eta ez hori bakarrik: amaren alaba ere naizelako deitu naute. Nire kasuan transmisioa, oinordekotza eta askazgoa estuki loturik dira, beraz zaila zait gauzak bereiztea baina transmisioaz ondorio edo definizio orokor baten ematekotan hau erran nezake ene ustez: alde batetik, transmisioak funtzionatzen du emaileak jasotzaileari berak sortzeko tresnak ematen dizkiolarik. Nihaur ere horretan naiz, ene gauzak sortzen saiatzen agian egun batez norbaiti zerbait transmititu ahal izateko. Bestetik, ingurumenetik edanez, aire horretarik hartuz informalki jasotzen ditugun gauzak ere oso garrantzitsuak direla uste dut eta kantuaren kasuan, hizkuntzaren bainuan izateak oinarri sendo bat ematen dizula kulturaren, transmisioaren ekile eta norberaren artearen sortzaile izateko. Bainu hori da arriskuan jarririk Zuberoan.